

erantzuiguzu...



943 300 228



zuzendariari@jalgi.com

Modak anorexia bultzatzen al du?

■ **Ez dut uste harreman** zuzenik duenik modarekin. Anorexiarena arazo larriagoa da. Modarena, azken finen, ondorio bat da, baina ez dut uste modak anorexia bultzatzen duenik. **A. Kortajarena** (Eibar)

■ **Badu zerikusirik.** Ez dakit ondorio zuzena den, baina argi dago anorexiaren atzean, modak ezartzen duen

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizenak eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

Hurrengo galdera:

Interbentzio militarren alde ala kontra?

diziplina gogorra ere badagoela. Publizitatearen eragina nabarmena da; izugarritzko indarra du zenbait balio hedatzeko orduan eta horietako bat da modarena. Modak mota konkretu baten aldeko apustua

egiten da. Anorexia areagotzen duen modarena gainera. **Ana Mugika** (Bergara)

■ **Ez zait iruditzen** modak asko eragiten diot nik anorexiaren zabalbundeari. Egun

hauetan prentsan irakurri ditugun datuen arabera, anorexia duten gaixoen kopuruak ez du gora egin. Ez dira ugaltu anorexia kasuak. Badirudi gehiegizko arreta eman zaiola gaiari, eta ez dut uste benetan horrenbeste merezi duenik. Ez dut esan nahi arazorik ez dagoenik, baina neurtu behar dira gauzak. **Imanol Etzebarria** (Bilbo)



galdeiozu...

Patxi Zabaleta

HB-KO PARLAMENTARIOA

Bake prozesurik bizi al dugu Euskal Herrian?

Irene Lizartza [Irati]



■ **BAI; EUSKAL HERRIAN** badago bakegintza prozesu bat eta poliki-poliki aurrera doa. Bere ezaugarri nagusia, Euskal Herriko indar sozial eta politikoei bultzaturiko ekimena dela. Ez gaude Aljerko elkarriketen garaian bezala, bi boxeolarik ring-ean egiten duenari so. Eskal Herriari ez zaio bakea oparitutuko, askatasuna oparitutuko ez zaion bezala, baina guk geuk egindako bakeari, zergatik ez diogu euskal bakea deituko?

Martxoaren 30etik aurrera

Igor Jauregi • REALEKO JOKALARIA izango da

Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta
NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere
esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Irantzu Gallastegiren
detentzioa dela eta

Irantzu Gallastegi ikasle ezagutu genuenok adierazi nahi dugu emakume eta ikasle jator ezagutu genuela, detentzioa dela-eta jasan lezakeenak arduratzen gaituela, eta gure artean aske azkar izan dadin desio diogula. **Angel Zelaia-eta eta beste 20 sinatzaile gehia-**
go LOIU (BIZKAIA)

Oti Basaurira orain!

Azken egunotan esan digute preso gutxi batzuk kaleratu edota hurbiltzekotan direla. Honekin espetze politikaren nolabaiteko norabidearen irudia zabaldu nahi dela ematen du, arazo larriak dituzten preso-egoera behintzat konpondu edo kontutan hartzen delako irudia, alegia. Gobernuaren «gizatasunaren» erakusgarri.

Errealitatea gordinagoa da baina. Berez preso guztiek izan beharko lukete hemengo kartzeletan, herri honen gehiengo sozial eta politikoa era eta modu guztietan eskatu duen bezala. Horretan ez da aldaketarik espetze politikari. Baina ezta egoeraren larrian arazo bereziak dituzten preso-egoera kasuan ere.

Horren adibidea dugu Iñigo Otazua Oti-ren egoera. Oti 1994an atxilotu zuten. Carabanchel eta Alcalá-Mecón izan ondoren orain Cuencan dago, etxetik 600 kilometrotara. Bere amak, Milagros Urrestik, ezin du semea ikusi, elbarria delako. Behin eta berriro eskatu du Basaurira etortzea ama ikusi ahal izateko. Izan ere, preso guztiek daukate etxeko-ekin bisita egiteko eskubidea (art.

51 LOGP), edota senide hurbil gaisoak etxean zaingopean ikusteko eskubidea (art. 155 RP). Baina Oti eskabide eta helegite guztiak atzera bota dizkiote orain arte.

Horixe da espetze politikaren norabidea, bada: ez irtenbiderik, ez konponbiderik.

Zergatik ez dute Oti Basaurira ekartzen? Zergatik jasan behar herriaren gehiengoak gaitzetsitako zigorra? Erantzuna gure esku ere badago: herriarrak, elkarte sozialak, erakundeak, alderdiak, instituzioak...! • **Uxune Iriondo GETXO (BIZKAIA)**

Korrika

Zer da Korrika? Korrika euskararen aldeko ekitaldi bat da. Aurtén 11. Korrika ospatzen ari da. Baina

nondik dator Korrika? 1980an jaio zen Korrika. Zenbait AEK-ko kideren aldetik Korrikaren ideia sortu zen.

Korrika denon eta denontzako ekitaldi bat da. Mundu guztiak parte hartu ahal du. Hori horrela ez balitz Korrika ez litzateke hain garrantzitsua izango. Horregatik hurrengo martxoaren 26an zu gurekin egotea nahi dugu.

Ez dauka inportantziarik zure adinak, ezta zure sexuak ere. Ezinbestekoa den gauza bakarra, hauxe da: Euskararen alde egotea orain eta betiko • **Bizitze Portugaleteko Xaribari Euskaltegiako 4. urratseko ikasleak PORTUGALETE (BIZKAIA)**

ZUZENKETA: Atzoko alean akats bat ateratzen bigarren orrialdeko *Personaiak* izeneko atalean. Felipe Riusi zegokion tokian Joxerra Garziaren argazkia ateratzen. Barkamenak biei.

• MONTXO •

